

Bere instalazio guztiak eguzki-energiatik datorren **elektrizitate berdez** hornitzen dira

Kutxabank Taldeak zerora murriztu du bere **elektrizitate kontsumoaren karbono-aztarna**

- Urtean 6.000 tona CO2 baino gehiago zeharka sortzea saihesten du
- Berotegi-efektuko gasen emisioa baso-azalaren mantentzearekin eta kontserbazioarekin konpentsatzen du
- Aktibo berriztagarrietan oinarritutako elektrizitatea hornitzeko epe luzeko energia salerosketarako kontratua sinatu zuen lehen bankua izan zen
- Finantza-arloan, iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen duten produktuen katalogo zabala du
- Jasangarritasunerako Zuzendaritza berria sortu da Presidentziako alorrean, klima-aldaketarekin eta ESG-rekin zerikusia duten gaien kudeaketa integrala egiteko

2020ko urtarrilak 2. Kutxabank Taldearen ia 900 banku-sukurtsalak eta lantoki guztiak **elektrizitate berdez baino ez** dira hornitzen dagoeneko, Iberdrolaren Núñez de Balboa instalazio fotovoltaikotik datorrenetik, hain zuzen ere.

Urtarrilaren 1etik indarrean dago 2018an Finantza-taldeak Iberdrolarekin sinatu zuen energia berriztagarrietan oinarritutako energia-horniduraren kontratua, energia-enpresa batek eta banku batek mundu osoan sinatutako mota horretako lehen kontratua.

Praktikan, bere bulego guztien eta zerbitzu zentralak dauden zentro guztien elektrizitate-kontsumoak eragindako **karbono-aztarna erabat ezabatu dela** esan nahi du.

Bere finantza-jarduera dela-eta, Taldeak ez du zuzeneko emisioen bolumen oso esanguratsurik igortzen. Adierazgarrienak zeharka sortzen ziren elektrizitate-kontsumoak eraginda, azken urteotan horien bolumena pixkanaka murrizten joan bada era, Bankuak abian jarritako **energia-eraginkortasuneko politika aktiboei** esker.

2020aren hasierarekin batera abiarazi den hornidura-ereduaren aldaketari esker, **6.000tik gora tona CO2 isurtzea saihestu** ahal izango da, hartara, ekonomia deskarbonizatzekeo estrategiari lagunduko zaio. Kopuru hori **15 mila tonara** iristen da, Taldeko **sozietateen** eta Banku-fundazio **akziodunen** jarduera kontuan hartuz gero.

Urteak dira Kutxabanke berotegi-efektuko gasen **emisioa baso-masaren azalera zabalak** mantentzearekin eta kontserbatzearekin **konpentsatzen** duela. Finantza-erakundeak **1.000**

hektarea baso baino gehiago kudeatzen ditu, biodibertsitatean aberatsak diren ekosistema ugari barne hartzen dituztenak. Hura ustiatzeko, Baso Kudeaketa Plana du, PEFC ziurtagiriaren pean, Baso Kudeaketa Iraunkorra bermatzen duena.

Gainera, **ingurumen-politika instituzional oso aktiboa** du, baita Ingurumeneko Jardunbide Egokien Gida bat ere, Kutxabanken lan egiten duten pertsona guztien sensibilizazioa eta ingurumen-jarduna hobetzea helburu duena.

Gidaliburu honek ingurumen-inpaktua minimizatzen duten neurriak praktikan jartzea sustatzen du, eraginkortasun energetikoaren, hondakinen bereizketa eta kudeaketaren edo baliabideen eta materialen erabileraren minimizazioaren bidez, besteak beste.

Kutxabankek, gainera, **naturarekiko errespetua sustatzen duten finantza produktuen** katalogo zabala du. Alde horretatik, erraztu egiten du ibilgailu eta etxetresna elektriko eraginkorrak eskuratzea, eta enpresa bezeroak ekonomia berde eta iraunkorrago baterantz igarotzea. Energia berriztagarriak sortzeko proiektuak garatzen dituzten enpresa-proiektuei ere laguntza ematen die, edo beren jarduera basoak babestera bideratzen dutenei ere bai.

Kutxabankek berriki **ESG-ko Zuzendaritza** sortu du, Presidentziako taldeari lotua. Bere zeregina finantza jasangarriekin lotura duten gaien kudeaketa integrala izango da, hau da, ingurugiroarekin, gizartearekin eta agintaritzako irizpideekin konprometitutako finantzena (ESG).

Talde berriak **aldaketa klimatikoarekin eta jasangarritasunarekin** zerikusia duten gaiak indartuko ditu Kutxabankeko negozio alorretan eta zerbitzu zentraletan.

Komunikazio eta Jasangarritasun alorrean bateratu den Zuzendaritza honen bitartez, Bankuak finantza arduratsuekin eta bere jarduerak ingurugiroan duen eraginarekin duen **konpromisoa** indartuko du.
